

Datu pertsonalen babesari buruzko politika hau ("Datuen Babeserako Politika") ("Zumalakarregi Museoa") domeinuko web gunearen [Baldintza Orokorren](#) parte da. Pribatutasun Politikan espresuki definitzen ez den edozein termino erabiltzen bada, Baldintza Orokorretan ematen zaion esanahia izango du.

Pribatutasun-politika honetan, Zumalakarregi Museoaren **Erabiltzaileen** datu pertsonalak jasotzea eta, ondoren, tratatzea arautzen da, Zumalakarregi Museoan egiten den sarbide eta erabileraren arabera.

1. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an, pertsona fisikoak babestearen inguruan, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienean, emandako 2016/679 Erregelamenduaren (EB) arabera eta Informazio-gizartearen eta merkataritza elektronikoaren zerbitzuei buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legearen arabera, "Izaera Pertsonaleko Datu"-tzat hartuko da Erabiltzaileak bere borondatez Zumalakarregi Museoari emandako edozein informazio, identifikatutako edo identifikagarri diren pertsona fisikoen ingurukoa, eta, Zumalakarregi Museoaren erantzukizuna izango da datu horiek tratatzea.

Zumalakarregi Museoa Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu publikoa da.

Harremanetarako datuak hauek dira:

- Helbidea: Muxika Egurastokia, 6, Ormaiztegi;
- Posta elektronikoa: mzumalakarregi@gipuzkoa.eus;
- Telefono-zenbakia: 943 88 99 00

Zumalakarregi Museoak Erabiltzaileari beharrezkoa den informazio guztia eskainiko dio, aldeztatik, baimena eman dezan, Zumalakarregi Museoak izaera pertsonaleko haren datuak tratatzeari ekin diezaion.

www.zumalakarregimuseoa.eus webguneko datuak jasotzeko orrietan besterik adierazi ezean, Izaera Pertsonaleko Datuak jasotzeak eta erabiltzeak helburu bakarra izango du: kasu bakoitzean Erabiltzaileak Zumalakarregi Museoaren bidez egiten duen eskaera erantzutea eta kudeatzea, Zumalakarregi Museoako jarduerari, zerbitzuei eta produktuei buruzko informazioa bide elektronikoaren bidez bidaltzea barne.

Bereziki, aipatu helburua zeregin hauetan zehaztu daiteke:

(i) Kontratu Harremana kudeatzea eta hori bete dadin bermatzea; halaber, Erabiltzaileak Zumalakarregi Museoaren inguruan une bakoitzean onartutako Baldintza Orokorrak eta Partikularrak betetzen direla egiaztatzea.

(ii) asebetetze-ikerketak burutzea, datuak eguneratzea eta Erabiltzaileak parte hartzen duen zozketetako emaitzak eta Community-ko parte diren Erabiltzaileen jarduera desberdinen irudiak argitaratzea;

(iii) Erabiltzaileak Zumalakarregi Museoaren bidez egindako eskaerak, kontsultak edo iradokizunak artatzea;

(iv) Erabiltzailearen publizitate-lehentasunak kudeatzea; eta

(v) Zumalakarregi Museoari dagozkion legezko betebeharrak betetzea.

Jasoak jasotzeko inprimakietan Erabiltzaileari eskatzen zaizkion Datu Pertsonalak derrigorrezkoak izango dira, dagozkion inprimakian bestelakorik adierazi ezean. Erabiltzaileak derrigorrez eskatutako datuak ematen ez baditu, Zumalakarregi Museoak ezingo du datu-orria izapidetu. Izaera Pertsonaleko datuak ematean, Erabiltzaileak Zumalakarregi Museoari bermatzen dio aipatutako datuak zuzenak, osoak eta egiazkoak direla eta bakarrik Erabiltzaileari dagozkiola, eta ez hirugarren pertsonari. Erabiltzaileak onartuko du bera izango dela erantzule bakarra baldin eta informazioa falta bada edo berau zuzena edo egiazkoa ez bada. Halaber, betebeharrak hauek bete ezean, Zumalakarregi Museoari edo hirugarrenei sor lezizkiekeen kalte edo galeren erantzule ere izango da.

Zumalakarregi Museoak ez du Erabiltzaileek emandako Datu Pertsonalik saltzen, ezta alokatu edo hirugarren pertsonen esku jartzen ere. Zumalakarregi Museoari zerbitzuren bat emateko beharrezkoa denean, datu-tratamenduen arduradunak Datu Pertsonaletan sartzeak ez du esan nahi datu horiek beste batzuei laga edo jakinarazten dizkietenik, beti ere indarrean dagoen legeak agindu bezala.

Izaera Pertsonaleko datuak ez dira marketing zuzeneko ekintzetarako erabiliko, baldin eta Erabiltzaileak ez badu aurretiaz horren berri izan eta ez badu horretarako baimenik eman. Erabiltzaileak bere lehentasunak aldatu ahal izango ditu aipatutako merkataritza-jakinazpenei dagokienez. Horretarako, idatziz zuzendu beharko du "Publizitateari buruzko Jakinarazpena" adierazita, Datuen Babesari buruzko Politikari dagokion 1. atal honen hasieran agertzen diren helbideetako batera.

Ondorio horietarako, Zumalakarregi Museoak, inplikaturiko parte bezala eta informazioaren segurtasunarekiko eta konfidentziasunarekiko duen konpromisoa aintzat hartuta, beharrezko neurriak hartu ditu aipatu datuak aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe horietara sartzea saihesteko.

2. ADIN TXIKIKOAK

Oro har, eta dagokion datu-orrian besterik adierazi ezean, Zumalakarregi Museoak ez du adin txikikoen Datu Pertsonalik tratatzen. Zumalakarregi Museoan adin txikikoen inguruan eskatzen den informazioa oso murriztua da, eta ez du haiek identifikatzen uzten, helburu bakarra proposatutako zerbitzuak garatzea baita.

3. HIRUGARRENEN DATUAK

Oro har, Zumalakarregi Museoa erabiltzeko ez da beharrezkoa hirugarrenen Datu Pertsonalak ematea; beraz, debekatuta dago, berariaz adierazi ezean, Erabiltzaileek Zumalakarregi Museoari ematea hirugarrenen Izaera Pertsonaleko inolako daturik.

Salbuespen gisa, Erabiltzaileak Hirugarrenen Izaera Pertsonaleko datuak eman ahal izango ditu, baldin eta datu-orrian hala adierazten bada eta, betiere, hirugarren horren aurretiko baimena eta baimen informatua badu. Bereziki, baimena informazioan oinarritutakoa dela uler dadin, Erabiltzaileak alde aurretik eman behar die hirugarrenei horren berri, eta horiek Baldintza Orokorrak eta Partikularrak ez ezik, Datuen Babeserako Politika hau ere onartu behar dute. Erabiltzailearen erantzukizun bakarra da hirugarrenen alde aurreko baimenak lortu eta kudeatzea, eta Erabiltzailea izango da betebeharrak hori ez betetzeagatik sor litezkeen kalte-galeren erantzulea.

4. ERABILTZAILEAK ESKUBIDEAK ERABILTzea

Edozein pertsonak eskubidea du Zumalakarregi Museoak hari dagozkion datu pertsonalak tratatzen dituen jakiteko. Pertsona interesatuek beren datu pertsonaletara sartzeko eskubidea dute, datu okerrak zuzentzea eskatzeko eskubidea, edo, behar izanez gero, ezabatzeko eskatzeko eskubidea ere bai, besteak beste, datuak jasotako helburuetarako jada behar ez badira. Era berean, Zumalakarregi Museoaren informazio komertziala bidaltzearen aurka egin ahal izango dute.

Egoera jakin batzuetan, pertsona interesatuek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute, eta, kasu horretan, datuak soilik kontserbatuko dira arrazoi legitimoak eta ezinbestekoak medio edo erreklamazio posibleen aurrean erabiltzeko edo defendatzeko.

Pertsona interesatuek beren eskubideak materialki erabili ahal izango dituzte <https://www.zumalakarregimuseoa.eus/> webgunean adierazitako posta elektronikoen bidez edo posta-helbidean (Muxika Egurastokia, 6. Ormaiztegi,); bi kasuetan, NANaren kopia aurkeztuko da. Halaber, erreklamazioa jartzeko eskubidea izango dute Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (www.aepd.es), haien eskubideak artatzeko moduarekin ados ez badaude.